



Kooperazioa Cooperación

IRAUNKORTASUNA GIZARTE TRANSMISIORAKO SENTSIBILIZAZIO ETA HEZKUNTZA PROIEKTUETAN

Udalaren Lankidetzak Sailak sustatutako lan-ibilbidearekin jarraituz, Garapen Iraunkorreko Helburuetan finkatutako prozesuak eta proiektuak sustatu nahi dira irabazi asmorik gabeko erakundeentzako diru-laguntzen oinarri espezifikoetan. Izan ere, prozesu eta proiektu horien helburuak dira, besteak beste, giza eskubideen bermea, parte-hartzea, erkidegoen sustapena, genero-ekitatea eta kontsumo eta produkzio kontzientea eta arduratsua. Garapenerako lankidetzak-proiektuei zuzendutako diru-laguntzen ildoan zein gizarte-transformaziorako sentsibilizazioko eta hezkuntzako proiektuei zuzendutako diru-laguntzen ildoan, aipatutako esparruak eta ideiak kontuan hartzen dira, balorazio-irizpideei dagokienez, eta abiapuntutzat hartzen da 17 mundu-helburu horiek beste esfera batzuk ere barnean hartzen dituztela, hala nola klima-aldaketa, desberdintasun ekonomikoa, berrikuntza, kontsumo iraunkorra, bakea eta justizia —beste lehentasun batzuen artean—.

Garapen Iraunkorreko Helburuak agenda inklusiboa dira; pobrezia funtziozko kausak dituzte aztergai, eta pertsonen eta planetaren onurarako aldaketa positiboa lortzeko indarrak batzen dituzte. Elkarreragin hori kontuan izanik, udalaren diru-laguntzen oinarri espezifikoek proiektuen ezaugarriak eta ahalmena balioztatzen dituzte, zehazki iraunkortasuna eta alderdi espezifikoak modu holistikoa eta integratua lantzeko ahalmena —kontsumo kontzientea eta arduratsua, gatazkaz libre dauden teknologiak edo elikadura-subiranotasuna, adibidez—. Horrez gain, erakunde eskatzailearen funtzionamenduan bertan, eta proiektua gauzatzean, iraunkortasun-irizpideak betetzen diren ebaluatuko dute, besteak beste. Horrenbestez, ekimen horiek errealitateetan eragina izateko eta errealitateak eraldatzeko gauza izateaz gain, gure adimena zabaltzeko eta, hartara, bizi garen mundua hobeto ulertzen laguntzeko gauza izatea ere bilatuko dugu.

SOSTENIBILIDAD EN LOS PROYECTOS DE SENSIBILIZACIÓN Y EDUCACIÓN PARA LA TRANSFORMACIÓN SOCIAL

Siguiendo con la trayectoria de trabajo impulsado desde el Departamento de Cooperación del Ayuntamiento, en las bases específicas de las subvenciones a entidades sin ánimo de lucro se busca fomentar aquellos procesos y proyectos asentados en los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS), que persiguen, entre otras cuestiones, la garantía de los derechos humanos, la participación, el fortalecimiento de las comunidades, la equidad de género, y el consumo y producción consciente y responsable. Tanto en la línea de subvenciones a proyectos de Cooperación para el Desarrollo, como en la línea de subvenciones a proyectos de Sensibilización y Educación para la Transformación Social, en los criterios de valoración se tienen en cuenta los mencionados ámbitos e ideas fuerza partiendo además de que estos 17 Objetivos Mundiales incluyen nuevas esferas como el cambio climático, la desigualdad económica, la innovación, el consumo sostenible y la paz y la justicia, entre otras prioridades.

Los ODS representan una agenda inclusiva, abordando las causas fundamentales de la pobreza y aunando fuerzas para lograr un cambio positivo en beneficio de las personas y el planeta. Teniendo en cuenta esta interrelación, las bases específicas de las subvenciones municipales valoran las características y capacidad de los proyectos para trabajar de forma holística e integrada la sostenibilidad y aspectos específicos como el consumo consciente y responsable, las tecnologías libres de conflicto o la soberanía alimentaria por ejemplo, además de evaluar el cumplimiento de criterios de sostenibilidad, entre otros, en el propio funcionamiento de la entidad solicitante y en el desarrollo y plasmación del proyecto en su conjunto. Buscando también que sean iniciativas capaces, no solo de incidir y transformar realidades, sino también de ampliar nuestras mentes, ayudándonos así a comprender mejor el mundo en que vivimos.

Hauek dira 2018an gizartea eraldatzeko hezkuntzako proiektuen adibide batzuk, guztira 218.994 €-ko zenbatekoa izan dutenak:

- Saretuz Sarea: Kontsumo kontzientea, arduratsua eta eraldatzailea. Zaintzetatik gizartea eraikiz #ConSumoCuidado.
- Tipi-tapa Bagoaz! Bizimodu iraunkorrerako eskubidearen aldeko auzitegi sinbolikoen trukea, "Jakintzak eta esperientziak partekatuz".
- Begirada kontzienteak III - Genero ikuspuntutik ipar eta hegoaldeko herrialdeen harreman desorekatuen aurrean jokabide arduratsuak sustatuz.
- Itunak indartuz eta kontzientzia kritikoa sortuz etxeko lanei eta zaintza-lanei dagokienez, tokiko mailan zein maila globalean.
- BIZI HEZI: Erkidego inklusibo, ekitatibo eta eraldatzaileen eraikuntza partaideturako ikaskuntza-prozesu integrala.
- 2030 Agendaren sustapena – Garapen iraunkorreko helburuak, eta DSDRak integratzeko ekintza-deia.
- Conflict free technology: gazteen partaidetza sustatzen Donostian mineralen eta gatazkaren arteko loturak hausteko.
- Donostiako gastronomia-elkarteen elikadura-subiranotasuna.
- Justizia, konponbidea eta ekitatea —gizartea eta politika eraldatzen duten bake-prozesuetarako—.

Ejemplos de algunos proyectos de Educación para la Transformación Social subvencionados en 2018, y que han alcanzado el monto total de 218.994 €, son:

- Saretuz Sarea: Kontsumo Kontziente, Arduratsu eta Eraldatzailea. Zaintzetatik gizartea eraikiz #ConSumoCuidado.
- Tipi-tapa Bagoaz!. Intercambio de tribunales simbólicos por el derecho a las vidas sostenibles, "Compartiendo Saberes y Experiencias".
- Begirada konstzienteak III- genero ikuspuntutik ipar eta hegoaldeko herrialdeen harreman desorekatuen aurrean jokabide arduratsuak sustatuz / "Miradas conscientes III". generando actitudes responsables desde la perspectiva de género ante las desiguales relaciones norte-sur".
- Reforzando alianzas y generando conciencia crítica sobre el trabajo doméstico y de cuidados en lo Local y lo Global.
- BIZI HEZI: Proceso de aprendizaje integral para la construcción Participada de Comunidades Inclusivas, Equitativas y Transformadoras.
- Promoción de la Agenda 2030 – ODS y llamado de acción para integrar los DSDR
- Conflict free technology: gazteen partaidetza sustatzen Donostian mineralen eta gatazkaren arteko loturak hausteko.
- La Soberanía Alimentaria en las Sociedades Gastronómicas donostiarras.
- Justicia, reparación y equidad para los procesos de paz transformadores social y políticamente.

KULTURA ANIZTASUNA IKASTETXEETAN

2005az geroztik, Cristina Enea Fundazioak kudeatzen duen Eskola Agenda 21 izeneko hezkuntza ekimen eraldatzailea garatzen du Udalak, Eusko Jaurlaritzarekin eta hiriko ikastetxeekin lankidetzan. Egitasmo horren helburua da ikastetxe bakoitzean hezkuntza komunitateak zenbait erronka bere gain hartzea, habitat jasangarriagoa lortu eta curriculumean gure planeta amaidunarekiko errespetuzko balioak txertatzeko xedeaz, besteak beste; egitasmoa osatzeko, urtero proposatzen diren aztergaiekin lotuta, ikastetxeek udalerrian zer gertatzen den aztertu, eta proposamenak prestatu behar dituzte. Horrela, hezkuntza komunitateak udalerriko bizitzan parte hartzea sustatzen da.

Ikasturte bakoitzean ingurumenaren arloko gai bat aukeratzen da. Ikasleek eta irakasleek gaia aztertzen dute; ikastetxeko nahiz ingurune hurbileko egoeraren diagnostikoa egiten dute, eta ikastetxe bakoitzean abian jartzeko hobe-kuntza ekintzak zehazten dituzte. Udalari hiria hobetzen laguntzeko proposamenak ere egiten dituzte.

2017/2018 ikasturtean zehar, "Kultura aniztasuna" landu dute Eskola Agenda 21 programan parte hartzen duten 28 ikastetxeek; 13.000 ikasle inguru aritu dira proiektu horretan.

Ikasgelan nahiz ikasgelatik kanpo egindako hainbat jardueraren bidez, ikasleek aukera izan dute gizarte integrazioaren arloan diharduten elkarte askoren lana eta hirian bizikidetzaz sustatzeko egiten diren esperientziak ezagutzeko, eta beste kultura nahiz ohitura batzuk dituzten pertsonei begira izaten diren estereotipo eta aurreiritziak gainean gogoeta egin ahal izan dute. Era berean, munduko hainbat tokitatik etorritako ikasleen kulturak ezagutu dituzte, eta horrek aukera eman die haiek hobeto ulertzeko eta hainbat herrialdetako jolasak, hizkuntzak, instrumentuak, abestiak, ohiturak, jakiak eta abar ezagutzeko, kultura aniztasunaren aldeko jaialdiak antolatu baitira edo aniztasun hori txertatu baitute ikasturtean zehar ikastetxeetan antolatutako jaialdi edo ospakizunetan. Hortaz, ikasturte osoan lan egin da ikasleekin, prestakuntza integrala eskaintzeko aniztasunari buruzko pentsamendu paradigma baten eraikuntzan, aniztasuna komunitatearentzat aberasgarria eta baliagarria den ezaugarritzat jotzeko gai izan daitezen.

Illo horretan, prozesua amaitzeko "udal foro" bat egin da, eta ikastetxeek bertan aurkeztu dute zer konpromiso hartuko dituzten elkarrekin bizi diren kulturen arteko onarpena bermatzeko eta guztien artean komunitatearen kapital kulturala areagotuko duen aniztasuna sortzeko.

DIVERSIDAD CULTURAL EN LOS CENTROS EDUCATIVOS

Gestionado por Fundación Cristina Enea, en colaboración con el Gobierno Vasco y los centros escolares de la ciudad, el Ayuntamiento viene desarrollando desde hace 13 años una iniciativa educativa y transformadora conocida como Agenda 21 Escolar. Un proyecto que busca que la comunidad educativa asuma en cada centro los retos de conseguir un hábitat más sostenible y la inserción curricular de valores de respeto para con el finito planeta en que habitamos, complementándolo con el ejercicio de analizar lo que pasa en el municipio en los temas objeto de atención cada año, elaborando propuestas y favoreciendo así la participación de la comunidad educativa en la vida municipal.

En cada curso escolar se elige un tema o variable ambiental. Se analiza dicho tema por parte del alumnado y profesorado, se realiza un diagnóstico de la situación en el centro educativo y en su entorno más cercano y se definen acciones de mejora que se ponen en marcha en cada centro. También se elaboran propuestas para ayudar al Ayuntamiento a mejorar la ciudad.

Durante el curso 2017/2018 el tema que se ha trabajado en los 28 centros participantes en el programa Agenda 21 Escolar ha sido la "Diversidad Cultural", implicando a alrededor de 13.000 alumnas y alumnos.

A través de diferentes actividades dentro y fuera del aula, se ha tenido ocasión de conocer la labor de muchas asociaciones que trabajan en la integración social y experiencias para la convivencia en la ciudad, reflexionando sobre los estereotipos y prejuicios existentes respecto a gentes procedentes de otras culturas y costumbres. También se ha tenido la oportunidad de conocer diferentes culturas del alumnado proveniente de otras partes del mundo y así poder entender y aprender juegos, idiomas, instrumentos y canciones, costumbres, gastronomía, etc., llegando a organizar festivales a favor de la diversidad cultural o incluyendo esa diversidad en festivales o celebraciones que se han organizado a lo largo del curso en los centros educativos. Todo ello ha supuesto un trabajo durante el curso de formación integral del alumnado en la tarea de construcción de un paradigma de pensamiento sobre la diversidad, capaz de considerarla como valor y riqueza para la comunidad.

En ese sentido, el proceso ha culminado con un "foro municipal" donde se han presentado los compromisos que los centros están dispuestos a asumir para asegurar la aceptación recíproca entre culturas convivientes, generando conjuntamente una variedad que incrementa el capital cultural de la comunidad.

Hauek izan dira konpromiso nagusietako batzuk:

- Ikasle etorkinei eta horien familiei ikastetxetik bertatik laguntzea.
- Etorkinekiko errespetuzko jarrerak sustatzea eta desberdintasunak errespetatzea.
- Ikastetxeetan aniztasunaren aldeko jarduerak antolatzea, kultura desberdinen ezaugarriak transmititzeko eta emakumeek kultura guztietan duten garrantzia ezagutzera emateko.
- Errefuxiatuen aldeko ekintzak antolatzen laguntzea.

Horrez gainera, ikasleek zenbait proposamen edo eskaera aurkeztu dizkiote Udalari. Hauek izan dira eskaera nagusiak:

- Errefuxiatuen aldeko ekintzak garatzea, harrera kopurua areagotzea eta baliabideak eskaintzea.
- Haurrak eta gazteak kontzientziatzeko jarduerak egitea: kultura aniztasunaren presentzia bermatuta egongo den jaialdiak, azokak, lasterketak, ekitaldi gastronomikoak, hitzaldiak eta abar.
- Kultura Aniztasunaren Plana eta Arrazakeriaren Aurkako Plana lantzea, zeinak barne hartzen dituzten aurrekontu zehatzeko ekintzak.
- Kultura aniztasunaren eta giza eskubideen alde lanean diharduten elkarteak eta erakundeak babesten jarraitzea.
- Faktore klimatikoen ondorioz euren jaioterriak atzean utzi eta gure hirira emigratu behar duten pertsonen errealitatea DSS Klima 2050 klima aldaketaren aurkako estrategia eta udal planean sartzeko aukera aztertzea.

Algunos de los principales compromisos han sido:

- Ayudar al alumnado y a las familias emigrantes desde el propio centro escolar.
- Promover actitudes de respeto a las personas inmigrantes respetando las diferencias.
- Organizar actividades en los centros a favor de la diversidad con objeto de transmitir las características de las distintas culturas, dando a conocer también la importancia de las mujeres en las distintas culturas.
- Ayudar en la organización de acciones a favor de las personas refugiadas.

Además, el alumnado ha presentado una serie de propuestas o peticiones al propio Ayuntamiento. Las principales demandas han sido:

- Desarrollar acciones a favor de las personas refugiadas incrementando el número de acogidas y ofreciéndoles recursos.
- Realizar actividades de concienciación dirigidas a la población infantil y a jóvenes con festivales, ferias, carreras, eventos gastronómicos, charlas, etc. en las que la interculturalidad esté presente.
- Trabajar el Plan de Diversidad Cultural y el Plan de Lucha contra el Racismo que incluyen acciones con presupuestos concretos.
- Continuar apoyando a las asociaciones y entidades que trabajan en defensa de la diversidad cultural y los derechos humanos.
- Estudiar la posibilidad de incluir en la estrategia y plan municipal contra el cambio climático DSS Klima 2050 la realidad de aquellas personas que debido a factores climáticos se ven obligadas a abandonar sus países de origen y migrar a nuestra ciudad.